

Patxi Ormazabal Galdos

A maila • 2 saria

Nire izena Patxi da, Gabirian jaio nintzen eta bertan bizi. Bertsoetarako zaletasuna izan dut txiki txikitatik, 7 urte nituela bertso eskola sortu zen Gabirian eta bertan egin nituen bi urte, izan ere, itxi egin zen arrakastarik izan ez zuelako. Ikasi dudan gutxia anaiarekin eta aitarekin kotxean kantatuz ikasi dut.



Doinua: Lazkao Txiren 'Ispilua' bertsoarena

HERRI TXIKI, HERRI MAITE

1)

Gabiri alden bizi naiz eta
bizi naiz oso kontentu
Nahiz ez ditugun zenbait
eroski banku edota komentu
Elkar laguntzen, ondo pasatzen
badugu zenbait talentu
Momentu larri ta itxusitan
indar handia hartzen du

2)

Herri erdian taberna bat ta
bi iturri gehienara
Gustora egon ohi ginen lehen
bertan guztiok batera
Baina birus bat etorri eta
benga guztiok etxera
Pisuan bizi direnen ondon
pribilegiatuk gera

BERTSOAK

3)

Zenbait juerga egin genitun
zaila daukagu kontatzen
Beti kanpora joaten ginen
beti herria hutsik zen
Baina benetan estimazio
handia ari da hartzen
Kanpoko geroz ta jende gehio
hasi da hona etortzen

4) Bista ederrak, jende humilla

eta kultura sendoa
Urtetan zehar meioratuaz
Gabiri aurrera doa
Birusarekin erakutsi du
gerora duen gogoa
Herri txikien elkartasuna
litzake antidotoa

5)

Aze tristura ta ze amorru
arau berriak jartzean
Ta ze poztasun ta libertate
lehengo batzuk kentzean
Garai hauetan sentitu nahiz
ni Euskal presoan antzean
Baina beraiek hobeto leude
familiakin etxean!!!

6)

Bertso kontuan ere badegu
aurpegia ematerik
Afari eta bazkarietan
ezta izaten besterik
Biztanle oron gustotako bat
izan degunez aurretik
Urte askotan jarrai dezala
oraingo bide beretik